

PRENTSARAKO OHARRA

18/09/18

Bizkaiko Batzar Nagusiek euren alkartasuna erakutsi deutsie RASDi, emakumeen higieine eta osasun baldintzak hobetzera zuzendutako egitasmoa onartuz

Bizkaiko Batzar Nagusiek lankidetzarako hitzarmena sinatu dabe gaur goizean Lankidetzarako Tokiko Euskal Erakundeen Alkartegaz - Euskal Fondoagaz, Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoan (RASD) gizakien aldeko eta garapenerako ekintzak gauzatzeko.

Akordio horretan oinarrituta, Batzar Nagusiek 60.000 euro bideratuko ditue 2018ko ekitaldi honetan Aaiun-eko Wilaya osatzen daben dairatako emakumeentzako 1.000 pakete higieniko erosteko, bialtzeko eta banatzeko. Leku horreek Tinduf uriaren ondoan dagoz, Aljeria mendebaldean, Mauritaniako, Marokoko eta Mendebaldeko Saharako mugatik gertu.

Guztira, 15 eta 17 urte arteko 1.000 emakume eta euren zuzeneko senideak izango dira paketeen onuradunak. Paketeek, beste gauza batzuen artean, hau eukiko dabe: konpresak, tanpoiak, toailatxo hezeak, bainurako jela, hortzetako pasta, hortzetako eskuila eta orraziak.

Hitzarmena gaur goizean sinatu dabe Maite Etxebarria Euskal Fondoko presidente eta Abantoko alkateak eta Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentek Bizkaiko Batzar Nagusietako Bilboko egoitzan. Azken horrek “Bizkaiko Batzarrek Sahararen kausari eta Saharako herritarren zapalduetako eskubideei emoten deutsien aho bateko laguntza politikoa eta instituzionala” azpimarratu ditu.

Bertan egon dira, baita be, Begoña Gil Mahaiko Lehenengo Presidenteordea; Joseba Gezuraga Mahaiko Bigarren Presidenteordea; Elsa Pamparacuatro Bigarren Idazkaria; Abdulah Arabi Fronte Polisarioak Euskadin dauen ordezkarietako kidea; eta Amaia Elorza Euskal Fondoaren Saharako Koordinazino Unitateko teknikaria.

Batzar Nagusietako presidentek, euskal biztanleek “bertako erakundeak buru dirala eta alde ideologikoak edo politikoak baztertuta”, Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoaren aurrean azken urteetan erakutsi daben alkartasuna gogoratuazo dau. Beste gauza askoren artean, Presidenteak Euskadiko familia askok Saharako umeak jasoten dituela eta Bizkaiko Batzar Nagusietako ordezkarietza batek Saharako errefuxiatuen eremuak bisitau ebazala azpimarratu dau.

Euskal Fondoko presidente eta Abantoko alkateak, Saharako herritarren egoeraren aurrean Euskal Fondotik dagon konpromisoa azpimarratu dau. Maite Etxebarriaren berbetan, gaur berretsi dan hitzarmenak, alkartearen jarduteko ildoan osatzen daben funtsezko helburu biri erantzuten deutse.

Alde batetik, “Mendebaldeko Sahara azkenengo hamarkadatan jasaten ari dan ahanzturaren errealidadea adierazotea”; eta bestetik, “Tindoufeko kanpalekuetan errefuxiatuta dagozan milaka personak bizirik irauteko jasan behar daben errealidade gogorra leuntzeko funtsezko ekarpena egitea”.

EGITASMOA GAUZATZEKO AKORDIOA

Horren ostean, Euskal Fondoaren eta Fronte Polisarioak Euskadin dauen ordezkartzaren arteko akordioa sinatu da, egitasmoa lankidetzan gauzatu ahal izateko. Oraingo honetan Fronte Polisarioak Euskadin dauen ordezkartzako Abdulah Arabi kidea eta Maite Etxebarria Euskal Fondoko presidentea izan dira testua sinatu dabenak.

Dokumentu horrek Aaiun-eko Wilayan egitasmoa gauzatzeko aukerea emoten deutso Euskal Fondoari, Euskadiko Saharako Ordezkaritzagaz eta Saharako Iretargi Erdi Gorriagaz lankidetzan.

Abdulah Arabik bere eskerrona erakutsi deutse Bizkaiko Batzar Nagusiei eta Euskal Fondoari: “Alkartasun hau eskertzeko eta aintzatesteko berbak baino ez daukaguz”. Fronte Polisarioak Euskadin dauen ordezkartzako kideak adierazo dauenez, alkartasun hori “beste Autonomia Erkidego batzuetako gobernuak jarraitu beharreko eredu da”.

AURREKO HITZARMENAREN BALANTZEA

Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Euskal Fondoak urtebete baino gitxiagoan sinatu daben alkarlanerako bigarren hitzarmena da. 2017ko abenduan, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Saharako errefuxiatuak dagozan kanpalekuetan garraioa hobetzeko alkarreak aurrera daroan lanera 60.000 euro bideratzeko akordioa sinatu eben.

Bederatzi hilebete geroago, Euskal Fondoko presidentek zehaztu dauen moduan, ibilgailuak konpontzeko ordezeko piezak bialtzea lortu da, eta gaur egun gasolindegi bat eregiten ari dira askatutako lurraldeetan. “Proiektu hori guztiz beharrezkoa da kanpalekuetan bizi diran Saharako biztanleentzat, garraio sistema barik ezinezkoa dalako elikagaiak, ura eta bestelako laguntzak banatzea”, gogoratuazo dau Euskal Fondoko presidentek.

NOTA DE PRENSA

18/09/18

Las Juntas Generales de Bizkaia muestran su solidaridad con la RASD aprobando un proyecto destinado a mejora de las condiciones higiénico-sanitarias de la población femenina

Las Juntas Generales de Bizkaia han firmado esta mañana un nuevo convenio de colaboración con la Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes - Euskal Fondoa para llevar a cabo acciones humanitarias y de ayuda al desarrollo en la República Árabe Saharaui Democrática (RASD).

En virtud de este acuerdo, las Juntas destinarán un total de 60.000 euros a financiar en este ejercicio 2018 un proyecto para la adquisición, envío y distribución de 1000 paquetes higiénicos para la población femenina de las distintas dairas que conforman la Wilaya del Aaiún. Concretamente en las inmediaciones de la ciudad de Tinduf, en la parte oeste de Argelia, junto a la frontera con Mauritania, Marruecos y el Sahara Occidente.

Un total de 1.000 mujeres de edades comprendidas entre los 15 y 17 años, así como sus familiares directos, se beneficiarán de unos paquetes que, entre otras cosas, contendrán: compresas, tampones, toallitas húmedas, gel de baño, pasta de dientes, cepillo dental y peines.

El convenio ha sido refrendado esta mañana en la sede de Bilbao de las Juntas Generales de Bizkaia por Maite Etxebarria, presidenta de Euskal Fondoa y alcaldesa de Abanto, y Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, quien ha resaltado el “el unánime apoyo político e institucional del Parlamento de Bizkaia a la causa saharauí y a los conculcados derechos de la población del Sahara”.

También han estado presentes en la firma Begoña Gil, Vicepresidenta Primera de la Mesa; Joseba Gezuraga, Vicepresidente Segundo de la Mesa; Elsa Pamparacuatro, Secretaria Segunda; Abdulah Arabi, el representante de la delegación del Frente Polisario en Euskadi; y Amaia Elorza, técnica de la Unidad de Coordinación Sahara de Euskal Fondoa.

La Presidenta de las Juntas Generales ha recordado las numerosas muestras de solidaridad que la población vasca, “con sus instituciones al frente y al margen de diferencias ideológicas o políticas”, viene dando con la República Árabe Saharaui Democrática en los últimos tiempos. Entre otras muchas acciones, la Presienta ha hecho hincapié en la acogida en verano por parte de familias vascas de niños y niñas saharauis, y en la visita, por parte de una delegación de las Juntas Generales de Bizkaia, a los campos saharuis.

Por su parte la Presidenta de Euskal Fondoa y alcaldesa de Abanto, ha enfatizado el compromiso que desde Euskal Fondoa mantienen con la situación que sufre el pueblo saharauí. En palabras de Maite Etxebarria, el convenio hoy refrendado da respuesta a dos objetivos fundamentales que conforman la línea de actuación de la asociación.

Por un lado, “poner de manifiesto la realidad del olvido en el que está sumido el caso del Sáhara Occidental durante décadas”; y por otro, “posibilitar de esta forma una aportación

fundamental para intentar paliar la dura realidad en la que sobreviven miles y miles de personas refugiadas en los campamentos de Tindouf”.

ACUERDO DE EJECUCIÓN DEL PROYECTO

Seguidamente ha tenido lugar la firma del acuerdo entre Euskal Fondoa y la Delegación del Frente Polisario para la ejecución de este nuevo proyecto. Esta vez han sido el representante de la Delegación del Frente Polisario en Euskadi, Abdulah Arabi y la Presidenta de Euskal Fondoa, Maite Etxebarria, quiénes han refrendado el texto.

Este documento permite a Euskal Fondoa la ejecución del proyecto en la Wilaya del Aaiún en colaboración con la Delegación Saharaui en Euskadi y la Media Luna Roja Saharaui.

Abdulah Arabi ha mostrado su agradecimiento tanto a las Juntas Generales de Bizkaia como a Euskal Fondoa: “No tenemos más que palabras de agradecimiento y reconocimiento a esta solidaridad”. Una solidaridad que, según ha apuntado el representante de la Delegación del Frente Polisario en Euskadi, “es un modelo a seguir para otros gobiernos autonómicos”.

BALANCE DEL CONVENIO ANTERIOR

Este se trata del segundo convenio de colaboración entre Juntas Generales de Bizkaia y Euskal Fondoa en menos de un año. En diciembre de 2017 las Juntas Generales de Bizkaia firmaron un acuerdo por el cual destinaron 60.000 euros para la mejora del transporte en los campamentos de la población refugiada saharauí que lleva a cabo la asociación.

Nueve meses después, tal y como ha detallado la Presidenta de Euskal Fondoa, se han logrado enviar repuestos materiales para el arreglo de los vehículos y actualmente se está construyendo una gasolinera en los territorios liberados. “Este proyecto es una parte vital de la supervivencia de los saharauís que viven en los campamentos, sin poder distribuir alimentos, agua y ayuda humanitaria sin un sistema de transporte”, ha recordado la Presidenta de Euskal Fondoa.